ARETXABALETA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a / 232. zenbakia

# Aretxagazeta
















## 2001 urteari errepasoa



Oztopo zailenak gaindi itzazu leuntasun osoz




Urte berri on.

GARAJE NORTE S.L.

OPEL

Basabe Poligonoa A-13 20550 **ARETXABALETA**
**Tel**: 943 71 20 03 **Fax**: 943 77 16 20

Zenbaki
AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es
web orria: www.zenbaki.es

## KALEINKESTA/ Ze moduz fan jatzu urtie? Ze destakauko zeunke?



**FRANCISCA SASIAIN**
**Langillie**

Gorabeherak euki dittut, baiñe jakin egin biher die erueten. Estatu Batuetan pasau dana ikaragarrixe izen da, eta hortxe dabitz; asko kostauko da berba egindde konponketie?



**JON IÑAKI IZARZELAIA**
**Langillie**

Orokorrien ona izen dala esango neuke. Destaketakotan, mundu maillako desordena eta bukatu ezin dan iskanbillie. Bai munduko bai Euskal Herriko egoerak kezkatzekuek die.



**MARIAN URIBESALGO**
**Langillie**

Neuretako ona izen da. Ez jat beste munduko ezer pasau, baiñe ez dot ezustekorik euki, eta hori ona da. Estatu Batuetan pasau dana inportantie izen da, eta ondio, gaiñera, ez da bukatu.



**ANDER ZUBIZARRETA**
**Ikaslie**

Urtie, orokorrien, ondo fan jatela esango neuke. Munduen gertaera inportantiek egon die, baiñe herrixen ez da beste munduko ezer pasau, eta betiko letxe jarraiketan dogu.



**SANDRA BARATO**
**Ikaslie**

Ona, ez dot aparteko ezer egin, eta ona izen dala esan biher. Udie Estatu Batuetan pasau neuen, Utah-n, eta horixe destakauko neuke. Bigarren aldiz fan naz eta gustora ibilli nitzen.



**XABIER PASTÚN**
**Langillie**

Gustora nago aurtengo urtiakin, eta batez be, Apotza-Etxebarrin jarri dauen frontoie destakauko neuke; ni pelotarixe izenda sarri-sarri faten naz hara entrenetan.

## ETABARRUAN...

GAINBEGIRATUA /3
URTEA DATUTAN /4
ONENA ETA TXARRENA /5
IRUDIAK /22

URTEARI ERREPASOA
**Urtarrila /6**
**Otsaila /7**
**Martxoa /8**
**Apirila /9**
**Maiatza /10**
**Ekaina /15**
**Uztaila /16**
**Abuztua /17**
**Iraila /18**
**Urria /19**
**Azaroa /20**
**Abendua /21**




## UDALARENJARDUNA/ Zelakoa izan da Udalaren jarduna?



### *Urtearen balantzea*

**ANJEL BERGARETXE** / Alkatea

Bukatzen ari den urtearen balantzea egiterakoan, plan estrategikoa ezin ahaztu; izan ere horretan murgildurik ibili ginen lehenengo urte erdia, hainbat herritarrekin batera. Azken hau da, gainera, nire ustez behintzat plan honek izan duen ederrena, herritarrek parte hartzeko aukera izan dutela, euren iritzia ematekoa, eta honek garrantzi berezia du, hiritarren eta Udalaren arteko hurbilketa prozesuan urrats handia delako.

> **"Plan honek izan duen ederrena, herritarrek parte hartzeko aukera izan dutela, euren iritzia ematekoa, hain justu"**

Baina jakina, beste gauza batzuetan ere ibili gara, asko, denak hemen aipatzeko, baina bi behintzat islatu gura nituzke, eurokin bereziki pozik nagoelako. Alde batetik, Gernika plazan egin diren lanak. Hain lan xumea izanik, izugarrizko arrakasta izan du, eta ezin pozgarriago da plaza hori umez eta gurasoz beteta ikustea. Bestea, skate parkearena da. Eta hau, iaztik zorrean geundelako hori eskatutako gazteekin.

Baina ez da dena polita izan. Ahoko gustu txarra utzi duten gauzak ere izan dira, eta horiek be aipatu behar balantzea egiterakoan. Horietako bat, irailean hasi eta hiru hilabetez luzatu den PNV/ EAko zinegotziekin izandako gaizki ulertua. Tristea izan da maila pertsonalean, eta txarra herrirako, baina gaindituri k dagoela dirudi, eta gaitzerdi!

Beste puntu beltz bat ere badago: ez ditugula oraindik hasi kultur ekintzetarako hain beharrezkoa dugun aretoaren lanak. Hau da nire aurtengo frustraziorik handiena. Baina proiektua oso aurreratua dago, eta aparteko trabarik ez badugu, datorren udaberrian hasi beharko genituzke.

Hauetaz aparte, jakina, zuetako bakoitzarentzat izango genituen hankasartze eta hutsuneak. Baina horiek kontatzea zeuei uzten dizuet. Ondo pasa jaiak eta Urte Berri Hobea!



### *Herritar baten gogoeta*

**M. J. ARETXAGA** / Herritarra

Penagarria da gero politikoei herritarrok aurpegia atera beharra izatea, baina sarri-sarri gertatzen ari da gure herri honetan eta arlo guztietan, gainera. Niri ez zitzaidan tartetxo hau betetzea tokatzen eta ez dut uste Udalaren jarduna baloratzeko egokiena naizenik.

> **"Niri ez zitzaidan tartetxo hau betetzea tokatzen eta ez dut uste Udalaren jarduna baloratzeko egokiena naizenik"**

Hala ere, aretxabaletarra naizen aldetik herrian gertatutakoen berri badaukat, eta ez da garai txarra urteari errepasotxoa emateko.

Udala eta gazteen arteko tira-birak aipatu gura nituzke. Gaztetxeak hainbat burukomin eman dizkio gure alkateari eta datorren urteko kinttoek ere beste horrenbeste emateko bidea dakarte. Zarata atera eta hautsak harrotu badira ere, bi aldeek eztabaidarako erakutsi duten jarrera azpimarratuko nuke. Seguru nago irtenbidea aurkituko dutena, ia inor haserretu barik den.

Plan estrategikoa ere egin zen. Hainbat herritarren parte hartzearekin eta dirua gastatuz. Hala ere, nik behintzat, ez daukat garbi zertarako den... Zerbaitetarako izan dadila! Ia Bainuetxeko Industrialdea ere abian jartzen den, gogaituta nago eta Lasa lantegiak botatzen duen ke zikina arnasten. Parrokia bai, hori zabalik dago, eta ni ez naiz hasiko polito geratu den edo ez esaten, domekero joaten direnei tokatzen zaiela esatea uste dut. Dena dela, ezin utzi aipatu barik diru eskariari herritarrek emandako erantzuna. Ez dago txarto, gero...

Jaietara pasatuz, Andramaixetako gau batean eta San Migeletako beste batean Herriko plaza goraino betetzea lortu zela esan behar. Aspaldian ikusi barik neukan hainbeste jende gure plazan. Eta bukatzeko,ondo-ondo pasatu Gabonak eta datorren urte arte, orduan ere izango da eta zerbait!

Aretxagazeta
Durana, 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki
ERREDAKZIOA
Iratxe Bengoa
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster
MAKETAZIOA
Goio Arana
PUBLIZITATEA
Ziortza Martin
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate
LEGE-GORDAILUA
SS-378-94
ISSN
1134-2609
TIRADA
4.100 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:
Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Leintz Gatzagako Udala

# URTEA DATUTAN

*Urtea joan da eta hainbat kontu, irudi eta datu utzi dizkigu gogoan. Datuak kontuan hartzen hasita mila zerrenda egin daitezke, baina guk bi eratakoak egin gura izan ditugu. Batetik, aisialdia hobeto pasatzen laguntzen diguten egunkari, liburu, aldizkari eta bideo hartuenak zeintzuk izan diren jakin gura izan ditugu. Bestetik, herrian jaiotakoen eta hildakoen zerrenda dago. Datu guztiak abenduaren 14a bitartekoak dira.*




## LIBURU hartuenak

ELEBERRIAK

1. **SOLSTICIO DE INVIERNO**
Rosamunde Pilcher
2. **Los Pilares de la Tierra**
Ken Follett
3. **La calle de la juderia**
Toti M. de Lezea

ELEBERRIAK EUSKARAZ

1. **Egun denak ez dira berdin**
Xabier Etxeberria
2. **Eta emakumeari sugeak esan zion**
Lourdes Oñederra
3. **Lur bat haratago**
Juan Mari Irigoien

UMEEN LIBURUAK

1. **Isiltasuna bihotzean**
Jaume Cela
2. **Harry Potter eta sorgin...**
J. K. Rouwling




## BIDEO hartuenak

1. **SCARY MOVIE**
Kennen Ivoy Wayans
2. **El Protegido**
M. Night Shyamalan
3. **El Bar Coyote**
David Mcnally
4. **Cadena de favores**
Mimi Leder
5. **Billy Elliot**
Stephen Daldy
6. **Chocolat**
Lasse Hallström
7. **Colega donde esta mi coche?**
Danny Leiner
8. **Hannibal**
Ridley Scott
9. **En que piensan las mujeres**
Nancy Meyers
10. **Limite vertical**
Martin Campbell

## Urtean JAIOTAKOAK

**URTARRILA**
7 Enea Borrego Alday
11 Arian Lopez Valdezate
17 Eñaut Beltran de Heredia Altube
30 Josu Aizpurua Olabe

**OTSAILA**
2 Xabier Alvarez Flores
3 Peru Bengoa Zubizarreta
8 Haizea Bengoa Etxebarriarteun
20 Dorleta Urkia Igartua

**MARTXOA**
4 Eneko Baladron Diez
24 Amaia Irure Ayastuy
Gorka Zumalde Etxabe
31 Maialen Fdz. Arenaza

**APIRILA**
4 Ane Etxabe Isasmendi
13 Beñat Basabe Arcauz
20 Endika de Tena Miguel
21 Danel Sarasua Gonzalez
Aketza Morales Maiztegui
22 Laura Igartua Vazquez
25 Nahia Eraña Mendez

**MAIATZA**
2 Markel Caballero Berrocal
7 Julene Rosado Garcia
9 Ainara Vazquez Cantero
12 Eneko Mateos Madinabeitia
18 Iker Romero Boyero
27 Janire Altube Iturricastillo

**EKAINA**
5 Iker Jimenez Molina
18 Malen Jurado Urkia

**UZTAILA**
7 Ekain Perez Borrego
8 Antton Unanue Alzola
10 Ane Martinez Ojuel
28 Ekiñe Bengoa Uribarren
Eider Ugarte Quiroga

**ABUZTUA**
10 Jokin Nuñez Gomez
14 Mireia Marcos Muñagorri
19 Unai Bermudez Etxebarrieta
Asier Merino Altuna
22 Mikel Pablos Pavo
28 Ainhoa Alonso Antelo

**IRAILA**
9 Leire Barbero Altuna
Aratz de Astobiza Palmas
14 Iker Garcia Oquina
19 Mara Perez Dos Santos

**URRIA**
11 Mikel Fernandez Ledesma
17 Kepa Roldan Mendizabal
23 Jokin Murillo Gomez

**AZAROA**
8 Lorea Mateos Escudero
13 Laura Morales Galan
20 Ibai Bengoa Moyua
21 Unai Cebrino Arcauz
26 Mikel Murua Ochoa

**ABENDUA**
2 Samuel Ramirez Iñiguez

## Urtean HILDAKOAK

**URTARRILA**
18 Daniel Igartua Arana (71)

**OTSAILA**
9 Vidal Castro Sandoval, (75)
26 Francisca Urcelay Unzueta, (88)

**MARTXOA**
11 Lorenza Lasagabaster Villar, (84)
31 Pedro de Diego Martinez, (34)
Nerea Kortabarria Amores, (17)

**APIRILA**
12 Sor Consolacion Orbegozo Uranga, (72)
13 Jose Altube Aranguren, (73)

**MAIATZA**
3 Pedro Pablo Urkia Astola, (73)
12 Jesus Martinez Hernandez, (32)
18 Guillermi Llano Etxagibel, (64)
26 Jose Mª Aginagalde Akizu, (85)

**EKAINA**
9 Juan Mª Kortabarria Arkauz, (43)
20 Francisco Antonio Oyanguren Atxa, (83)
25 Lino Intxauspe Perez, (6
26 Mª Carmen Arriola Zugasti, (81)

**UZTAILA**
3 Zigor Bengoa Barandiaran, (27)
23 Andoni Ortiz de Zarate Abaunz, (84)

**ABUZTUA**
3 Candido Etxeandia Arregi, (79)

**IRAILA**
27 Jesus Prieto Gonzalez, (6
28 Nicomedes Varilla Caballero, (56)

**URRIA**
19 Josefa Fernandez Esteban, (90)

**AZAROA**
3 Manuel Quintas Bastante (68)
12 Juana Arranz Salvador, (98)
13 Mikel Otero Aranda, (3
Angel Puerto Turrado, (7
18 Mª Blanca Perez Romeo, (53)
21 Mariana Sanchez Perez, (92)

**ABENDUA**
2 Felipe Armentia Murua (70)
7 Jose Olivenza Robledo, (75)

## EGUNKARI salduenak

1. **EL DIARIO VASCO**
2. **Gara**
3. **Marca**
4. **Deia**
5. **Mundo Deportivo**

## ALDIZKARI salduenak

1. **PRONTO**
2. **Hola**
3. **Qué me dices**
4. **Interviu**
5. **Muy Interesante**

## Egunik BEROENA

**2001eko ekainaren 25a**

**38 ºC**

## Egunik HOTZENA

**2001eko abenduaren 15a**

**-7 ºC**

## Egunik EURITSUENA

**2001eko azaroaren 13a**

**56,4 L**

Gertu

Etxeko berezitasuna: bakailaoa

Jakien elaborazio eta salmenta



Mitarte 10 · Tel: 943 77 06 12
Faxa: 943 77 15 82
20550 Aretxabaleta
(Gipuzkoa)

# ONENA ETA TXARRENA

*Urtean gorabehera eta kontu asko izan dira. Batzuk onak, beste batzuk erdiz purdikoak, eta txarrak ere bat baino gehiago. Denok ditugu 2001. urtean gertatutako kontutxo eta pasadizoak, guk, urteko onena eta txarrenaren inguruan hausnarketa txiki bat egin dezaten eskatu diegu hainbat herritarri. Zazpi izan dira aukeratuak eta elkarte edo talde baten irudi direlako eskatu diegu euren iritzia. Hona hemen esandakoak.*



**ASIER MUJIKA**
Udaleko kirol teknikaria

**GOIENA KOMUNIKABIDEAK**
Debagoieneko herri komunikabideok erakutsi duzuen gaitasuna Goiena proiektua gauzatzeko, bakoitzaren arazo eta interes partikularren gainetik adostasunak eta bateratzeak lortuz.

**GIZARTE DEMOKRATIKOA**
Bere burua gero eta zibilizatuago eta demokratikoagotzat duen gizarte/gizaki honek elkarbizitzean eman dituen pausoak Estatu Batuetan, Afganistanen, Israelen, Euskal Herrian…



**MARI ASUN BENGOA**
EPEH plataformako kidea

**PLATAFORMA AURRERA**
Herritarrek eta elkarteek osatutako Aretxabaletako plataformak euskal presoen alde lanean jarraitzen du. Preso guztiak etxera ekarri arte, gainera, ez du etsiko.

**PRESOEN EGOERA**
Euskal presoen egoerak bere horretan jarraitzen du:Euskal Herritik urruti, 3/4a beteta dutenak eta gaixoak oraindik barruan… eta epe motzean konpontzeko arrasto gutxi.



**JOSEBA LASAGABASTER**
Basotxoko bigarren idazkaria

**GIRO ONA ETA GOGOA**
Basotxoko batzordekideen artean giro ona eta ekintzak egiteko gogoa da nagusi. Ideia eta proiektu ugari ditugu buruan, eta antolatutako ekintzekin Basotxoko giroa berotu gura izan dugu.

**PARTE HARTZE ESKASA**
Penagarria bada ere oso parte hartze eskasa izan dute antolatutako ekintzek, batez ere hitzaldiek. Bidaietara eta opariak ematen diren ekintzetara jende ugari dator, baina bestela…



**ESTHER MATEOS**
Gazte Asanbladako kidea

**GAZTETXEKO EKINTZAK**
Gaztetxean urtean zehar hainbat ekintza egin ditugu. Kontzertuak, antzerkiak…ekitaldi ugari egin dira. Horrez gain gazteen partea hartze handia azpimarratuko nuke.

**UDALAREKIN TIRA-BIRAK**
Udalarekin izan genuen iskanbila izan da txarrena. Gaztetxéa itxi nahi zutenean elkarrizketa bideak apurtu zituen udalak, eta gainera, ez ziguten funtsezko arrazoirik eman.



**ANTONIO ASTIGARRAGA**
Parrokoa

**MAIATZAK 13**
Euskal Herriko biztanleok, gure botoaren bidez, herri hau zein bidetatik eraiki nahi dugun adierazi genuen, giza duintasunari begirunea izanaz, eta herritarron hitzari jaramon eginaz.

**IRAILAK 11**
Egun horretako gertakizun tamalgarrien ondoren inoiz baino nabariago agertu zen Estatu Batuen neurririk gabeko inperialismoa eta jadanik, nazio guztietako epaile eta polizia bihurtu da.



**NEREA ELORZA**
Loramendi EEko dinamizatzailea

**KANPOTARREN JARRERA**
Gure herrira bizitzera etorri diren Kolombiako eta Kubako bi emakumek erakutsi duten euskararekiko jarrera. Euskaraz ikasiz eta bertako ohiturak ezagutuz bertaratu dira.

**ZERBITZUAK GAZTELERAZ**
Ezinbestekoak diren hainbat zerbitzu, Osasun Zentruko zerbitzuak esaterako, oraindik ezin ditugu euskaraz jaso. Ia mediku aldaketak egiten dituztenean kontuan hartzen hasten diren.



**JESUS MARI IDIGORAS**
Pausokako Guraso Elkarteko lehen.

**PAUSOKA BERRIA AURRERA**
Pausokako eraikin berriak forma hartu du eta laster izango da inauguratzeko moduan. Haur eskolaren ardura udalak hartzea ere oso positiboa izan da haur eta gurasoontzat.

**IRAILAREN 11KO ONDORIOAK**
Irailaren 11ko hautsak denok zikindu gaitu eta oraindik, gainera, ez dakigu non bukatuko diren orduko gertakariek sortutako ondorioak: bakoitzaren eskubideak urratuta…



# URTARRILA



*"Merkataritzan gaztelania erabili izan da beti, eta orain ere, joera hori dago"*
**LEIRE OKARANZA**
LORAMENDIKO DINAMIZATZAILEA
2001-01-12



*"Karatea borroka-arte bat dela esango nuke kirola baino gehiago"*
**ALEX JUSTEL**
KARATE IKASLEA
2001-01-26

## HILEKO ESALDIA

**"Pentsau aurreko urtien %56 igo ziela etxien preziuek. Eta noraiño helduko dan ez dago jakitterik"**

**IBON AGIRRE/** BANKUKO LANGILEA
2001-01-12

## HILEKO DATUA

# 28

**KARATEKAK ERAKUSKET EGIN ZUTEN**

Hilaren 20an, karatekek eraku keta egin zuten Kiroletxea Hala, eskoletan ikasitakoa e kutsi zuten. /2001-01/20



### Urkuluko urtegia egiterakoan ateratako argazkien erakusketa

Gabonetan argazki taldeko lagunek erakusketa polita egin zuten Aretxabaletako argazki zahar eta berriekin. Urkuluko urtegia egiterakoan Azatza eta Korueta auzoetan urpean desagertutako hainbat baserriren erretratuak ikusi ahal izan genituen. Horiek guztiak Murrukixo elkarteko lokalean izan ziren ikusgai, eta herritarrek asko gozatu zuten erakusketarekin. /2001-10-12

**PASEALEKU BERRIA ITXURA HARTZEN**
Urte berriarekin batera hasi ziren Kiroletxeko zubitik Errotabarriraino pasealekua egiten. /2001-01-26

**LORATEGIETAN TXAKURREN KAKAK**
Udalak gai horren gainean neurriak hartu arren, herriko lorategiek txakur kakekin beteta segitu zuten. /2001-01-12

## AIPAGARRI



**FRAN MIGUEL**
**Xake jokalaria**

Fran Miguelek Gabonetan jokatu zen Gipuzkoako Xake Absolutuko Txapelketa irabazi zuen. Aitor Alcaide, berriz, bigarren sailkatu zen. /2001-01-12



**JONAN LARRINAGA**
**Futbolaria**

Aurreko denboraldian futbola utzita bazuen ere, taldera itzuli zen Jon Ander Larrinaga. Gainera, bere lehenengo partiduan bi gol sartu zituen. /2001-01-26



**R. M. DE LA HIDALG**
**Dendaria**

Leintz-Rosi mertz riak irabazi zue 2000ko erakusleih lehiaketa. Rosi Ma tínez de la Hidalg ezusteko handia ha tu zuen saria iraba terakoan. /2001-01-

UDALTZAINGOA

### Herriko udaltzainek itxura berria erakutsi ziguten

Aretxabaletako udaltzainek txapel berria estreinatu zuten urte berriarekin batera. Horrela, lehengo txapel gorria alde batera utzi, eta udaltzainen ohiko txapel urdina jantzi zuten. Hala ere, hasiera baten, txapelok Udaletxeko armarria jarri barik zeukaten oraindik. /2001-01-12

PARROKIA

### Parrokia konpontzeko 28 milioi batuta zituzten urtarrilean

Parrokia konpontzeko beharrezkoak ziren 30 milioietatik, 28 batuta zeuden urtarrilerako. Kanpoko lanen artean, teilatuko bigak eta oholeria guztia aldatu, egurrezko estruktura tratatu, leihoak aldatu, kanpandorreko sotoa garbitu eta teilatu berria jarri zioten elizari. /2001-01-26

LITERATURA LEHIAKETA

### Loramendi literatura lehiaketako sariak banatu zituzten

Urtarrilaren 18an banatu zituzten eskola arteko XII. Loramendi literatura lehiaketako sariak. Urtero moduan, parte hartze handia izan zuen lehiaketak. Denera, Kurtzebarri eta Almen ikastetxeetako 150 ikasleren lanak jaso, eta hamabi saritik gora banatu zituzten. /2001-01-26



### Pasialeku berria kiroletxetik Errotabarrira

**Urte berriarekin batera hasi ziren kiroletxeko zubitik Olazabal lantegira pasialekua egiten. Markoleko etxeak egin zirenean onartu zen, errekaren beste aldean pasialekua egitea.**

PASIALEKU BERRIA ABIAN /2001-01-26


Zubia



zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14. Tel. : 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1. Tel.: 943 79 66 53
ARRASATE

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA
Bazkari eta afariak
Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Maritxu
drogeria
mertzeria
Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

HAURRAK



UMEENDAKO MODA
Lezama merkatal zentrua, 15
943 77 14 86
Aretxabaleta

# OTSAILA



*"Zaborrak birziklatzea guztion ardura da, ezin gara geldi egon"*
**KEPA AZKUE**
LANGILEA
2001-02-09



*"Bizitzako aldaketak oso denbora laburrean ematen dira"*
**ARANTXA JAKA**
LEKAIMEA
2001-02-23

**HILEKO ESALDIA**

## "Herrian kirol klub bakarra sortzearen aldekoa naiz, Oñatiko Aloña Mendi eredu hartuta"

**JOSE MARI ARMENTIA**/ ZINEGOTZIA
2001-02-23

**HILEKO DATUA**

# 15

**LAGUN IBILI ZIREN DANTZA IKASTAROAN**

Tril emakume taldeak antolatutako areto dantzen ikastaroan hamabost lagun ibili ziren dantzak ikasten. /2001-02-09




### Mozorroek ohiko kolorea eman zioten Aratuste-domekari

Urtero legez, mozorroek eta koadrilen kalejirek eman zioten bizitasuna Aratuste-domekari. Aurtengoan ere, herriko kaleak kukumarruz bete ziren, zein baino zein originalagoak eta bitxiagoak. Talde sarituak honakoak izan ziren: Paterak, Prozesioa, Txaranga, Gallo Peña, Pitufoak, Piratak, Baserri-zahar eta Tenistak. /2001-02-23

**HERRI SAHARARRARI LAGUNTZEKO MARATOIA**
↑ Joseba Larrinagak eta Ramon Erañak Saharako errefuxiatuei laguntzeko maratoian parte hartu zuten. /2001-02-27

**KINTOEK EZ ZUTEN AURTEN ERE ONDO JOKATU**
↓ Kalte material ugari eta zarata handia. Horixe eragin zuten aurtengo Santa Ageda mutilek. /2001-02-23

## AIPAGARRI



**AGURTZANE ELKORO**
**Kiroletako zinegotzia**

Jose Mari Armentia Kirol zinegotziak kargua utzi zuenez, Agurtzane Elkorok bete zuen haren postua. Otsailean hasi zen Agurtzane lan horretan. /2001-02-23



**ASIER ATXA**
**Txirrindularia**

Txirrindulari denboraldia hasi zuen Asier Atxak Olarra taldean. Hala, amateur mailan hirugarren urteari gogotsu ekin zion 21 urteko gazteak. /2001-02-23



**NATALIO MAIZTEGI**
**Dantzaria**

Dantza ikastaroa eman zuen Natalio Maiztegi oñatiarrak Aretxabaletan. Hamabost ikasle ibili ziren dantza ikasten, horietatik hiru, mutilak. /2001-02-09

LANAK

### Gernika plazako zaharberritze lanak hasi ziren

Gernika plazako lanak otsailean hasi ziren. Urtarrilaren 29an egindako osoko bilkuran, lanen ardura Grey Hound enpresari ematea erabaki zuen Udalak. Udalaren helburua zen plazari itxura berria ematea: umeendako parke bat egin eta eserlekuak jarri, besteak beste. /2001-02-09

BAKE EPAITEGIA

### Bi langile berri hasi ziren Bake Epaitegian lanean

Erregistroko eta epaitegiko lanak egiteko, Maite Etxabe hernaniarra eta Prado Mora barakaldarra hasi ziren lanean Udaletxean. Aretxabaletaz gain, Eskoriatzako lanen ardura ere hartu zuten. Ordura arte, Xabier Mendizabalek eta Rafa Etxeandiak egiten zituzten lanok. /2001-02-09

TXIRRINDULARITZA

### Dorletako Ama txirrindulari taldeak aurkezpena egin zuen

Otsailaren 24an, denboraldi berrirako txirrindularien aurkezpena egin zuen Dorletako Ama txirrindulari taldeak. Dorletako Ama Birjinari lore eskaintza egin eta gero, luncha izan zuten Apotzagan. Ohikoa baino txirrindulari gutxiago aurkeztu zituen taldeak: 16, hain justu. /2001-02-24

**ELKARRIKO BAKE KONFERENTZIA AURKEZTU ZEN** /2001-02-23



**JUANJO PEREZ**
ELKARRIKO KIDEA

**Bake konferentzia nola dago momentu honetan?**

**Talde moderatzaile bat alderdi politiko guztiekin lanean dabil une honetan, eta helburua da, 2002ko martxorako printzipio eta metodoen inguruan adostasun minimo bat lortzea.**

BEIRALAN KRISTALDEGIA

*Urte berri on guztioi!*

- Komunerako altzari eta manparak
- Horma armairuak
- Beirate artistikoak
- Salarako mahaiak
- Beirate "fusing"ean kalitate haundia

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 09 97 274

# MARTXOA



*"Eraikuntzan oraindik ez gaude ohituta emakumeak ikustera"*
**OLAIA ETXENAGUSIA**
ARKITEKTO TEKNIKOA
2001-03-09



*"Laster, plan estrategiko gabeko herririk ez da izango"*
**RESU ABASOLO**
IRAKASLEA
2001-03-09

## HILEKO ESALDIA

**"Emakumezkook bide luzea egin behar dugu oraindik berdintasunera iritsi ahal izateko"**

**MARIA PILAR GARCÍA** / IKASLEA
2001-03-09

## HILEKO DATUA

# 2

**ZIKOINA EGON ZIREN UDALETXEKO PARKEAN**

Zikoina bik bisita egin zigu martxoan. Udaletxe osteko ar la baten egon ziren, denbo luzez. /2001-03-23



### Copreciren 40 urteko historia erakutsi zuten argazkitan

Martxoko lehenengo hamabostaldian, Copreciren historiaren gainean argazki erakusketa antolatu zuen Argazki Artxiboak eta Murrukixo mendi elkarteak. Argazki zaharrak, gaur egungoak eta Coprecik egiten dituen hainbat produktu jarri zituzten ikusgai. Erakusketa arrakastatsua izan zen oso, eta lagun ugari hurreratu zen ikustera. /2001-03-09

ZINEKLUBA ABIAN

Zinema alternatiboari indarra emateko, zinekluba abian jarri zuten herriko gazte batzuek. /2001-03-23

ARBOLEI ERASOA

Santa Kurtz aldean, trenbideko bi zuhaitzen arramak apurtuta agertu ziren. /2001-03-23

## AIPAGARRI



**IDOIA ELEXPURU**
**Margolaria**

Idoia Elexpururen margolanak ikusgai izan ziren martxoaren 16tik apirilaren 1a arte. Mota guztietako olioak erakutsi zituen Idoia Elexpuruk. / 2001-03-09



**MIKEL MORRAS**
**Patinajeko irakaslea**

Mikel Morrasek patinaje ikastaroa eman zuen. Hogei lagunek eman zuten izena, eta batzuk kanpoan gelditu zirenez, bigarren bat ere antolatu zuten. /2001-03-23



**ANJE DUHALDE**
**Abeslaria**

Martxoaren 30ea Anje Duhalde iz zen gurean. Kurt barri eskolako a toan lagun ugari b zen iparraldeko ab lariaren kantal entzuteko. /2001-0

PARROKIA

## Barrualdeko lanak hasteko, parrokia nagusia itxi zuten

Martxoaren 12an esan zen azkeneko meza herriko parrokia nagusian. Kanpoko berrikuntza lanak amaitu ondoren, barruko lanak egiteko, parrokia itxi egin zuten. Itxieraren ondoren, mojetan eta Mitarte kaleko baxuan esan ziren mezak, ohiko ordutegian. Ordurako, Mitarteko lokala margotu eta mezak esateko egoki jarri zuten, baina, hala ere, jendearen artean zeresana eman zuen hasieran egoitza berriak. Izan ere, garaje baten mezak esatea arraroa egin zitzaien herritarrei hasiera baten. /2001-03-23



Mitarte kalean esan ziren mezak.

UNAI PROIEKTUA MARTXAN /2001-03-23



**IBON ANTERO**
HIRUATXEKO KIDEA

### Condegakoa eta gero Unai proiektua. Zer lortu da Gujeraten?

**120 esne-bufala, jeep bat eta bilera-gela izango den eraikuntza lortu dira. Horren ondoren, beste proiektu berri bat dugu eskuartean: Ekuadorreko Rukullakta.**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

OSKAR GARAJEA

Zorionak eta urte berri on!

# APIRILA



*"Behartsu izatetik aberats izatera iritsi gara urte gutxian"*
**JOSE MARI SARASUA**
ERRETIRATUA
2001-04-06



*"Herriaren maila ekonomikoa etxebizitzen prezioan baino ez da igartzen"*
**ANA BELEN HIDALGO**
UDALEKO TEKNIKARIA
2001-04-27

## HILEKO ESALDIA

**"Gero eta elebitasun maila handiagoa izan, orduan eta hobeto jakin daiteke beste hizkuntza bat"**

**MARIA PILAR SAGASTA**/ IRAKASLEA
2001-04-06

## HILEKO DATUA

**12.**

**KORRIKA PASATU ZEN GURE HERRITIK**

*Mundu bat euskarara bildu* lelopean, Korrikak goizaldeko 02:30ak inguruan zeharkatu zuen Aretxabaleta. /2001-04-23




## Gaztetxea uzteko dekretua

Aretxabaletako Udalak gaztetxea uzteko dekretua aditzera eman zuen. Jakinarazpen horren ondoren, Gazte Asanbladak hainbat ekintza eta mobilizazio egin zituen herrian. Udalak adierazi zuen Galartzan adostutako hitzarmena Gazte Asanbladak ez zuela bete. Hitzarmen horretan gaztetxeak errespetatu beharreko ordutegiak eta lokalaren erabilera finkatu ziren, besteak beste. Kultura ekitaldiak egin behar zirela eta taberna ixtea eskatu zuen alkateak. Gaztetxeko lagunek dekretuari eta gaztetxea uzteko erabakiari prentsaurreko baten bitartez eman zioten erantzuna. Ordutegiak errespetatzen zirela, kultura ekintzak egin zirela, eta alkatearekin elkarrizketa bidez arazoa konpontzeko nahia azaldu zuten Gazte Asanbladako kideek. /2001-04-02

**COPRECIK URREZKO Q JASO ZUEN**
↑ Copreciko langileek kalitatearen urrezko Q saria jaso zuten apirilaren 11n. /2001-04-11

**SEINALEZTATZE TXARRA PORTASOLEN**
↓ Errotabarri ondoko bidea itxita egon zen, eta bide-moztea ez zuten batere ondo seinaleztatu. /2001-04-23

## AIPAGARRI



**IBAN SASTRE**
**Txirrindularia**

Iban Sastrek Euskal Herriko txirrindulari itzulian hartu zuen parte. Zorte haundirik ez zuen izan ordea, Festina taldeko txirrindulariak . /2001-04-09



**MARKEL URIARTE**
**Trialsina**

Gipuzkoako Trialsin Txapelketan, benjamin mailan, lehenengo sailkatu zen Markel Uriarte. Bost proba gainditu behar izan zituen gailentzeko. /2001-04-06



**ERRASTI ANAIAK**
**Pilotariak**

Deba Arroko Pilota Txapelketa irabazi zuten Errasti anaiek. Finala Bergararen aurka jokatu zuten Antzuolako frontoian. 21-16 gailendu ziren. /2001-04-27

ABERRI EGUNA

### Hainbat herritarrek Aberri Egun bateratua ospatu zuten

Pazko zaharrean, aberria aldarrikatu zuten hainbat eta hainbat herritarrek. 12etan meza izan zuten; gero, Udaletxetik lehengo udaletxe zaharrera eraman zuten ikurrina. Agurra dantzatu zen han, eta ikurrina balkoian jarri ondoren, komunikatua irakurri zuen alkateak. /2001-04-15

ASTE SANTUKO OSPAKIZUNAK

### Aste Santuko ospakizunek erantzun ona izan zuten

Arantzazura egin zuten bakearen aldeko ibilaldiarekin hasi ziren Aste Santuko ospakizunak. Egun hartatik Pazko zaharrera arte, hainbat ekintza erlijioso antolatu zituzten. Orain dela urte batzuk berreskuratu zen gurutzebidea ere egin zuten Isurietara Egubakoitz Santuan. /2001-04-27

XAKEA

### Fran Miguel eta Aitor Alcaide Euskal Herriko Xake Txapelketan

Fran Miguelek eta Aitor Alcaidek emaitza onak lortu zituzten Pazko Astean jokatu zen Euskal Herriko Xake Txapelketan. Fran bosgarren sailkatu zen, eta Aitor hamabigarrena izan zen. Maisu profesionalen aurka jokatu zuten, eta jakina, nekatuta bukatu zuten txapelketa. /2001-04-27

GAZTETXEA UZTEKO DEKRETUA /2001-04-06



**ANJEL BERGARETXE**
ALKATEA

### Udalaren eta gaztetxearen arteko arazoa konpondu zen?

**Hausnarketa prozesu bat egon zen, baina ez dut horren ondoriorik jaso. Bestetik, suteen eskilara oztopatuta dagoela eta, denuntzia bat bidali zen gaztetxera, eta ez dute oraindik erantzun.**

Zainduz
OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

*Kirol zerbitzuak:*
- Programa pertsonalizatuak (Fitness-a).
- Aerobik / Aerobik gazte / Aerobik Txiki.
- Mantenimendu gimnasia - Aero Gim (talde txikiak).
- Senior gimnasia I eta II
- Aero Fit / Aero Box
- Gimnasia terapeutikoa.
- TAI-CHI
- Aikido

*Osasun zerbitzuak:*
- Lesioen tratamendua.
- Fisioterapia / Osteopatia.
- Elektroterapia.
- Kirol masajea / terapeutikoa / drenatze linfatikoa / stress-aren aurkakoa.
- Osteoporosia, artrosia, diabetea eta hipertentsioa prebenitu eta tratatzeko egitarauak.
- Sauna eta Solariuma.



Kirol eta osasun zerbitzuak
zainduz@euskalnet.net
Ilargi Plaza 6 behea • Tel.: 943 712 792 • Mug.: 658 758 012 • 20550 Aretxabaleta

# MAIATZA



*"Gran Hermano saioa egiteko muntaia handia dago"*

**EDU ABASOLO**
TEKNIKARIA
2001-05-11



*"Bizikletan ziurtasunez eta errespetuarekin ibiltzea eskubide bat da"*

**FERNANDO BERRIZBEITIA**
ZIKLOTURISTA
2001-05-25

## HILEKOESALDIA

**"Industrialdeak bateratzean, kudeaketa eta burokrazia kontuak asko arinduko dira"**

**KOLDO AZKOITIA** / INDUSTRIALDEA
2001-05-25

## HILEKODATUA

# 1.177

**MILIOIKO AURREKONTUA ONARTU ZUTEN**

Hilaren 21ean onartu zituzte 2001. urteko udal aurrekontua 200 milioi, lursailen erosketeta inbertitzeko dira. /2001-05-21

## LEGEBILTZARRERAKOHAUTESKUNDEAK



### Botoen erdia baino gehiago lortu zuen EAJ-EA koalizioak

Partaidetza haundia izan zen herrian Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, %82,7koa hain zuzen. Emaitzei dagokienez, EAJ/EA koalizioak lortu zuen boto gehien gurean: 2.200. EHk, berriz, boto dezente galdu zuen: 843 atera zituen danera. PSE-EEk 525 botorekin gora egin zuen; PPk ere bai, 462 boto. Ezker Batuak ere gora egin zuen, 196.

| | | |
|---|---|---|
| EAJ-EA | 2.200 | % 51,2 |
| EH | 843 | % 19,6 |
| PSE-EE | 525 | % 12,2 |
| PP | 462 | % 10,7 |
| IU-EB | 196 | % 4,5 |
| Abastentzioa | 903 | % 17,3 |

/2001-05-13

**FELIX IÑURRATEGI MENDI ESKOLA**

Pakistanen goi mailako mendi eskola bultzatzeko, Felix Iñurrategi mendi eskola aurkeztu zuten. /2001-05-23

**HERRIA HANKAZ GORA**

Santa Kurtz kaleko frontoi parea aparkaleku barik egon zen, etxe berrietako obrak zirela-eta. /2001-05-25

## AIPAGARRI



**CRISTOBAL ALTUBE**
**Abeslaria**

Maiatzaren 7an bete ziren 50 urte Kristobal Altube *Txindurri* hil zela. Mundu osoan ospetsu egin zen tenorea izan genuen Cristobal Altube. / 2001-05-11



**IGOR GUENETXEA**
**Autokroseko gidaria**

Oñatin jokatutako autokrosa irabazi zuen Igor Guenetxeak. Lasterketa hasieratik jarri zen aurrena, eta bukaera arte eutsi zion lehenengo postuari. /2001-05-11



**MARIA ELENA LLORENT**
**Korrikalaria**

Otala Zelaiko kros an emakumezkoeta lehenengo aretxaba letarra izan ze Maria Elena Lloren te. Haren denbora helmugan, 00:34: izan zen. /2001-05-06

ATZERATUEN JAIALDIA

### Atzeratuen jaialdiak 160 lagun batu zituen Iturrigorri frontoian

Atzeratuen aldeko jaialdia ospatu zen herrian maiatzaren 12an. Denera, Debagoieneko 160 bat lagun batu ziren gurean. Eguna ospatzeko, bazkari ederra egin zuten Iturrigorri frontoian, eta gero, dantzaldi batekin eman zioten amaiera egunari. Ederto pasatu zuten guztiek. /2001-05-12

PEDRO GUENETXEA MEMORIALA

### Dominique Branan, Pedro Guenetxea memorialeko onena

Urtero legez, maiatzaren 20an, Pedro Guenetxea memoriala jokatu zen. 133 txirrindularik hartu zuten parte. Irabazlea Dominique Branan izan zen, Pirineo Atlantico taldeko txirrindularia. JMAko txirrindularietatik, berriz, Mikel Arana ibili zen azkarren. /2001-05-20

OTALA ZELAIKO KROSA

### Euria lagun izan zuten Otala Zelaiko kroseko 92 korrikalariek

Euria geratu barik egin zuen maiatzeko lehenengo domekan, eta busti-busti eginda amaitu zuten Otala Zelaiko krosean parte hartu zuten 92 korrikalariek. Asier Zarraga izan zen lehena helmuga marratik pasatzen. Sei aretxabaletar bakarrik aritu ziren aurtengoan korrika. /2001-05-06

EUSKARAZKO AGIRIA ONARTU EZ /2001-05-11



**RESU ABASOLO**
KURTZEBARRIKO IRAKASLEA

### Nola bukatu zen auzia Arartekora jo ondoren?

**Euskararen kontseiluko behatokian dago auzia, oraindik ere aztertzen ari dira. Ministeritzatik hainbat erantzun jaso ditugu, baina inork ez digu ziurtatu hurrengoan gauza bera gertatuko ez zaigunik.**



**Olentzero, gabonzahar-gau, bizar zuri, urteberri, erregeak,...**
*guk ere egun seinalatu hauek zuekin ospatzea nahi ditugu.*

Aretxabaletako Eusko Alkartasuna


Arizmendi Ikastola Koop. Elkartea
osatzen dugun familiaren izenean,
eskerrik asko gure jaiotzak izan duen
harreragatik.
Arizmendi
ikastola
Arizmendi, Koop. E.


AZKARATE
AROZTEGIA
TELLERIA, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
TEL.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
TEL.: 943 77 01 24
ARDATZA
Brikolaketa
MASTERREKA, 4 BEHEA.
TF.: 943 76 18 93 •
BERGARA
Telefonoak: 943 76 47 19 eta 610 88 40 20
ATEAK, LEIHOAK, , TARIMAK
ETA PARKETAK
HORMA ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRU IRRISTAGARRIAK
TOLESGARRIAK
BRIKOLAKETA

# EKAINA



*"Gorputza itxura onarekin edukitzeko barrutik eta kanpotik zaindu behar da"*
**AINTZANE LASA**
EUSKARA TEKNIKARIA
2001-06-08



*"XVI. mendeko dokumentu bat aurkitu dugu udaletxean"*
**MARIJO URTEAGA**
ARTXIBOKO TEKNIKARIA
2001-06-22

## HILEKO ESALDIA

**"Oraingoz, selektibitatea egin beharra dago unibertsitatean sartzeko. PPren asmoa hori aldatzea da"**

**LURDES KINTANILLA** / IRAKASLEA
2001-06-08

## HILEKO DATUA

# 165

**LAGUNEK PARTE HARTU ZUTEN TRIATLOIAN**

Debagoieneko I. triatloiak par hartze handia izan zuen, 1 lagun, denera. Guztietatik 13 bukatu zuten. /2001-06-09



## Pako Iriondori omenaldia

Garai bateko "Kostaldeko" mendi elkarteek Pako Iriondo omendu zuten ekainaren 3an. Pakok gura zuen omenaldia Aretxabaletan izatea, batetik, "Kostaldeko" ordezkari izateko proposamena hemen egin ziotelako, eta bestetik, Iñurrategi anaiekin lotura estua izan duelako beti. Giro politean ospatu zuten eguna omenaldian parte hartu zuten guztiek. Goizean Angel Bergaretxe alkatearen agurrarekin hasi zen ekitaldia. Gero, mendiarekin lotutako hainbat pertsona ezagunen txanda izan zen. Garai bateko "Kostaldeko" mendi taldeetako ordezkariek eta Lizaso eta Mendizabal bertsolariek ere ez zuten hutsik egin. Ekitaldia ondo amaitzeko, bazkaria izan zuten batutako guztiek Iturrigorri frontoian. Hala, giro onean bukatu zen eguna. /2001-06-3

BAZTERRAK GARBITU
Foru Aldundiak Azatzako eta Urkuluko bide bazterretako belar eta sasiak moztu zituen. /2001-06-22

LARRINOKO BIDEA KONPONDU BARIK
Irakurle batek idatzi bat bidali zuen, eta esaten zuen Larrinoko bideak mando bidea ematen zuela. /2001-06-22

## AIPAGARRI



**ASIER ATXA**
**Txirrindularia**

Ekain bukaeran Leonen egin zen Espainiako Txapelketan hartu zuen parte Asier Atxak. Euskal Herriko selekzioak deituta joan zen Leonera. /2001-06-23



**HECTOR PRIETO**
**Boccia jokalaria**

Katalunian jokatu zen elbarrituen txapelketan urrezko domina eskuratu zuten Hector Prietok eta beste bi taldekidek Boccia modalitatean. /2001-06-08



**RAMON ITURRICASTILL**
**Mendizalea**

Ramon Iturricastill Alaskatik bueltat zen, McKinley mer dia igo ondoren. Ipa Ameriketako me dirik altuena da Ala kan dagoen mend hura. /2001-06-22

SAN JUAN BEZPERA

### Suaren argitasunean ospatu zen San Juan bezpera

Arratsalde girotuaz eta gau beroaz agurtu genuen San Juan bezpera. Aurten, nagusien dantza taldeak San Juan dantza egin zuen sua piztu aurretik. Gauerdi aldera, kintoek, kostata, pinua altxatu zuten, eta istripu bat ere izan zen tartean. Zorionez, ez zen hain larria izan. /2001-06-23

FUTBOL 7 TXAPELKETA

### Kurtzebarri eskolako neskak Gipuzkoako txapeldunorde

Kurtzebarri eskolako infantil mailako neskak bigarren sailkatu ziren Gipuzkoako Futbol 7 Txapelketan. Finalera partidurik galdu barik iritsi ziren arren, finala Lezoren aurka 1-0 galdu zuten. Lortutako emaitza behar bezala ospatzeko, afaria egin zuten taldekideek. /2001-06-22

FUTBOLA

### UDA kirol elkarteak etorkizuna eztabaidatu zuen

UDA kirol elkarteak batzar orokorra egin zuen ekainaren 22an. Zuzendaritza hartzeko hautagairik aurkeztu ez zenez, horixe izan zen batzarrean landu zen gairik garrantzitsuena. Udako zuzendaritzak beste batez jarraituko zuela adierazi zuen elkartea zuzentzen. /2001-06-24



### Herri proiektua osatu eta gero, zer gelditzen da egiteko?

**"Herri proiektua jarraitzeko batzordea eratu gura da. Gonbidapena luzatu zaie planean parte hartu zutenei. Bik baiezkoa eman dute, baina jende gehiago behar da" erantzun digu alkateak.**

**PLAN ESTRATEGIKOAREN TXOSTENA BUKATUTA** /2001-06-22

ITURGINTZA

URA, GASA ETA KALEFAZIOA
943 79 31 87
ARETXABALETA

J.J
Jose Jabier Irure

Zorionak eta urte berri on guztioi!

**Gemes** edertze aretoa



- Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- Depilazioa argizari beroaz eta hotzaz. Dekolorazioa
- Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- Azalaren garbiketa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
- Ordezko azazkalak (natural-naturalak) manikura eta aplikazioa
- Pedikura
- Dieta pertsonalizatuak
- Betileen tindaketa

**Edertasun teknika berri-berria**

Durana, 40 **ARETXABALETA** - Tel.: 943 79 99 18



*Aretxabaleta okindegia*



*Zorionak eta urte berri on!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19

# Aretz taberna




- .Gosariak
- .Pintxoak
- .Plater konbinatuak
- .Otartekoak
- .Pizzak
- .Hanburgesak
- .Sandwichak
- .Oilasko erreak
- .Kazuelatxoak

**Zorionak denoi!**

**ORDUTEGIA:**
**Astelehenetik ostiralera**
**9:00etatik zabalik**
**Astebukaeretan**
**11:00etatik aurrera**

**Markole, 5 behea Tel.: 943 79 20 14 ARETXABALETA**

---

LEIBAR Arraindegiak
Mitarte, 1 • Tf. 943 771379
Loramendi, 1 • Tf. 943 791833

ERRASTI Kioskoa
Durana, 19 • Tf. 943 799876

Maritxu Mertzeria
Araba Ibilbidea, 24
Tf. 943 79 23 53

GEMES Edertze Aretoa
Durana, 40
Tf. 943 799918

Jon Harategia
Loramendi, 1 Tf. 943 79 71 69

Zainduz
Osasun eta fitness zentrua
Centro de salud y fitness
Ilargi plaza 6
Tel. 658 758 012

MartiW
Erlojeria • Bitxitegia
Mitarte, 16 • Tf. 943 79 01 72

Drogeria Mertzeria LEINTZ
Errekabarren, 3 • Tf. (dendakoa) 943 79 78 63
(etxekoa) 943 79 06 84

FARMA BIZI
Loramendi, 8
Tfnoa-Faxa: 943 771818

IRIARTE
Umeen denda eta lentzeria
Durana, 8 • Tfnoa: 943 79 10 96

Bitxitegia
MIREN & ZURIÑE
Bitxien diseinua
Otalora kalea. Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 771357

TXILARRA
Elikadura berezia
Durana, 35
Tf.: 943 79 10 15
Loramendi, 9
Tf.: 943 79 44 28

Berezki: Harategia, Urdaitegia, Fruitategia
IMANOL Janari denda
Gorbea kalea. • Tfnoa: 943 79 05 83

Irudi
Ileapaindegia
Peluquería mixta
Erreka Barren, 20 b. • Tf. 943 798090

ALBOKA
Gazte moda
Durana, 36 • Tfno: 943 771610

HERRASTI Akeita etxea
Cafes
Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 85

Electronica AITZORROTZ
Automatismo eta mantenimendua • Instalazio elektrikoak
Antenak, antena kolektiboak eta parabolikak
Telebista-audio-bideo salmenta eta konponketa
Satelite digitala
Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610

Oinetakoak
Feltrak
zapatak
gerrikoak
Zubia
Mitarte, 14
943 79 16 00

NERIAN Loradenda
Tfno.: 943 79 70 66

Paperdenda
IBER Loteria
Otalora, 2
Tfnoa: 943 79 79 24

aretxarte
MERKATARI ELKARTEA

**Errege eguneko loteria oparitzen dugu!**



**GABON ZORIONTSUAK IGARO DITZAZUELA DENOK!**

- artegintza.
- artesanía.
Centro Comercial Lezama, 14
Tfno. 943 770792

IBARRA Estankoa
Prentsa
Ikasmateriala
Bizkaia, 3 • Tf. 943 792377

Confecciones ASENSIO Jantzidenda
Mitarte, 12 • Tfno.: 943 79 10 72

Lasai
Mirian Marteca
Masajista
[illegible]
Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 • Tf. 943 770434

Frutan eta txarkuterian espezialitatea
Angelines Autozerbitzua
Mitarte, 16 • Tfno.: 943 79 61 42

JOSU
Urdaitegi
Gozotegi
Kroasantegi
Janari prestatuak
Mitarte, 1 • Tf. 943 77 03 08

ARETXABALETA ITURGINTZA
Fontanería
Durana, 16 • Tfno.: 943 79 17 53

Larrad
Peluquería y Salón de belleza
• Luzatzeak
• Mikropigmentazioak
• Depilazio elektrikoa
Loramendi, 11 • Tf. 943 799079

L-10
Ileapaindegia
[illegible]

Etxabe harategia
Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61

Jauregi okindegia
Otalora, 10
Tf. 943 79 57 47

OPTIKA
Loramendi, 10 • Tf. 943 79 98 21

Leniz liburudenda
Herriko Plaza, 10
Tf. 943 79 75 53

Gertu
Jakien elaborazioa eta salmenta
Mitarte, 10 • Tf. 943 770612

XUME Teladenda
Errekabarren, 14 • Tf. 943 79 11 19

HAURRAK
Umeendako moda
Lezama merkatal zentrua, 15
Tf. 943 77 14 86

MARI KARMEN oinetakoak
Konponketak
Errekabarren • Tf. 943 79 59 85

Fruteria Errekabarren Frutadenda
943 799643

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Departamento de Industria, Comercio y Turismo

# UZTAILA



*"Umeak udalekuetara jolastera datoz, inor ez dator behartuta"*

**LARRAITZ IÑURRATEGI**
DINAMIZATZAILEA
2001-07-08



*"Aste bukaeretan ere zerbitzua ematea ezinbestekoa da"*

**MARTIN GARAI**
UDALTZAINA
2001-07-20

## HILEKOESALDIA

**"Gehiengoak mediterraneoa edo hegoaldeko eguzki eta hondartzak ditu gogoko"**

**OSANE AYASTUY**/ LANGILEA
2001-07-06

## HILEKODATUA

# 170

**NESKA-MUTIKO APUNTATU ZIREN UDALEKUETAN**

Uztailean egin ziren udalekuetan 170 umek hartu zuten parte. Haien begirale moduan, berriz, 25 begirale aritu ziren. /2001-07-06



## Omenaldi hunkigarria Felixi

Uztailaren 28an, Felix Iñurrategiri omenaldia egin zion herriak. Ekitaldi nagusia Udaletxe osteko loradegian izan zen. Familiaren, lagunen eta herritarren artean, loradegia bete-bete egin zen, Felixi omenaldia egiteko. Txalaparta soinuaz hasi zen ekitaldia. Gero, Angel Bergaretxe alkatearen agurra izan zen. On Antonio abadeak Felix Iñurrategiren harrizko oroigarria bedeinkatu zuen ondoren, eta bi mendizalek, Mari Abregok eta Josu Bereziartuak, hain justu ere, Felixen oroigarria erakutsi zuten. Aretxabaletako abesbatza, dantzariak eta bere lagun zituen bertsolariak ere ekitaldian izan ziren. Udaletxe osteko loratégiak Felix Iñurrategi izena hartu zuen egun hartatik aurrera, eta harrizko oroigarria han bertan jarri zuten, betiko. /2001-07-28

**ERREKABARRENEN OZTOPO GUTXIAGO**

↑ Errekabarrenen zuhaitzak inguratzeko zeuden porlanezko blokeak kendu ziren, aparkalekuen mesederako. /2001-07-20

**URKULUN AUTOAK TXARTO APARKATUTA**

↓ Uztailean jende ugari hurreratu zen Urkulura, eta askok eta askok okerreko lekuan aparkatu zuten. /2001-07-06

## AIPAGARRI



**ALBERTO IÑURRATEGI**
**Mendizalea**

Alberto Iñurrategi eta Jon Beloki Gasherbrum-I mendiko tontorrera iritsi ziren uztailaren 8an. Albertorendako 13. zortzi milakoa izan zen. /2001-07-08



**GURUTZE MUJIKA**
**Margolaria**

Gurutze Mujika margolariak irabazi zuen aurtengo Andra Mari jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Gurutzek akrilikoz egin zuen margolana. /2001-07-20



**ROBERTO GUTIÉRREZ**
**Saskibaloi jokalaria**

Uztailean herrian izan zen Roberto Gutiérrez saskibaloi jokalaria. EEBBetan Minesotan ari da jokatzen 21 urteko jokalari aretxabaletarra. /2001-07-20

PILOTA

## Herriko pilotariak bigarren gelditu ziren herri artekoan

Gipuzkoako herri arteko pilota txapelketan bigarren gelditu ziren pilotari aretxabaletarrak. Finalean Soraluze 2-1 gailendu zitzaion etxeko taldeari. Partidua Donostiako Atano III.ean izan zen, eta herritar ugari joan zen hara finala ikustera; ikuskizun politaz gozatu zuten. /2001-07-08

PORTASOLGO JAIAK

## Portasolgo jaietan eguraldi kaskarra baina giro ona

Uztailaren erdi-erdian ongietorria egin genien Portasol auzoko jaiei. Hogeita bost bat lagun ibili ziren jaiok antolatzen. Eguraldiak ez lagundu arren, ekintza ugari izan ziren hiru egunean. Arrakastatsuenetakoa, agian, Gorbea kalean egin zen sokamuturra izan zen. /2001-07-14

PORTASOLGO OBRAK

## Errotabarri pareko bidea zabaldu zuten hilaren erdian

Portasolgo jaietarako zabaldu zuten Errotabarri pareko bide zatia. Lanak urtarrilean hasi ziren, eta trenbideko pareta atzeratu eta bidearen eskuinaldean espaloia jarri zuten Ederlaneko zubiraino. Hala ere, bidea zabaldu arren, marra zuriak geroago margotu zitzuten. /2001-07-14

**URKULUN PIRAGUAN IBILTZEKO BAIMENA LORTU GURAN** /2001-07-20



**OIER ARANZABAL**
PIRAGUISMO SAILEKO ARDURADUN OHIA

**Azkenean lortu zenuten Urkulun piraguan ibiltzeko baimena?**

**Ez, Ur Partzuergoak mila baldintza eta traba jarri zizkigun, hauetako batzuk gainera, gure ustez gehiegizkoak. Ondorioz, tramiteekin aurrera ez jarraitzea erabaki genuen.**

TXILARRA
ELIKADURA BEREZIA
Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44

Dorleta taberna
Bezeroen zerbitzura
Loramendi, 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

ANDRA MARI
Aholkularitza
- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala
Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

IBARRA
estankoa
PRENTSA ETA IKASMATERIALA
Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

# ABUZTUA



*"Hirugarren egunien izen ezik, jentiek gutxi parte hartu dau jaixetan"*

**JOAKIN GURUCEAGA** /HERRITARRA

2001-08-17



*"Barrakak gustau jat gehixen eta buruhaundixek gutxien"*

**GORKA ARBULO** / IKASLEA

2001-08-17

## HILEKOESALDIA

**"Jai batzordeari esker, egitarau zabala osatu dugu, era guztietako gustu eta adinetarako"**

**INMA MIGUEL** / KULTURA TEKNIKARIA

2001-08-14

## HILEKODATUA

**14**

**AULKI JARRI ZIREN KIROL ETXE ONDOKO PASEALEKUAN**

Kirol etxetik Olazabal lantegira doan pasealekua abuztuan buka tu zuten. 14 aulki jarri eta zuhaitzak landatu ziren. /2001-08-03



### Andramaixak, lau eguneko jai giroan

Abuztuan herria erdi hilik egon arren, hilaren erdialdean Andramari jaiek animazioa ekarri zuten Aretxabaletara. Lau egunean era guztietako ekintzak izan genituen, nagusi, gazte eta umeendako. Egunik girotsuena, betiko moduan, hirugarren eguna izan zen, eta horren erakusgarri, goiko erretratua. /2001-08-17

**JAI BATZORDEA**

↑ Jaiak antolatzeko orduan bai eta jaietan ere Jai batzordeak lan izugarria egin zuen. /2001-08-14

**DEBA IBAIA, GIPUZKOAKO KUTSATUENA**

↓ Ikerketen arabera, berriro ere Deba ibaia Gipuzkoako kutsatuena izan zen. /2001-08-14

## AIPAGARRI



**MARIATXEN URKIA**
**Abeslaria**

Andramaixetako hirugarrenean mariachiekin batera abestu zuen. Kanturako ahots ederra duela erakustera eman zigun beste behin ere. / 2001-08-17



**JOSU ATXAGA**
**Zinegotzia**

Herriko bandera Josu Atxaga Udaleko zinegotzi gazteenak eraman zuen jaietan. Aurten, meza Mitarten izan zen eta haraino egin zen kalejira. /2001-08-15



**EDU MURUAMENDIARAZ**
**Koreografoa**

Edu Muruamendiarazek zuzentzen duen Aukeran taldeak koreografia bikaina eskaini zigun Andra Mari Egunean. Ikusle ugari batu zen plazan. /2001-08-15

MEHATXU-GUTUNA

## Alkateak mehatxu-gutuna jaso zuen Udaletxean

Anjel Bergaretxe alkateak joan den abuztuaren 20an mehatxuzko gutuna jaso zuen Udaletxean. Gutun-azala Udaletxean bertan erabiltzen diren horietako bat zen, eta Anjelen etxebizitzako helbidea eduki arren, Udaletxera heldu zen. Gutunaren barruan bederatzi milimetroko *Parabellum* bala bat eta *Hurrengoan ez duzu ikusiko, zuk eta zure senitartekoek sentituko duzue* zioen mehatxua aurkitu zituen. Gutunak Francisco Franco diktadore espainiarraren 40 zentimoko zigilu zahar bat eta GLA Askapenerako Talde Antiterroristaren sinadura zituen. /2001-08-20



Alkateak jasotako mehatxu-gutuna.

### Pasealeku berriko lanek jarraitu egin



**Abuztuan zehar Amaral enpresa kiroletxetik Olazabal lantegira doan pasealekuko lanak egiten aritu zen. Hamalau aulki jarri ziren 300 metro luzeko ibilbidean. Lan guztiak, barrez, irailean bukatu ziren.**

KIROLETXEKO PASEALEKUKO LANEK JARRAITU ZUTEN /2001-08-01

Aretxabaletako

EAJ PNV

Gabon zoriontsuak
eta
urte berri on guztioi



# IRAILA



*"Euskaldunondako ondarerik aberatsena euskara da"*
**JOKIN ANTXIA**
LANGILEA
2001-09-28



*"Loramendin lan egiteko, herrikoa izatea garrantzitsua da"*
**OLATZ OLASO**
DINAMIZATZAILEA
2001-09-28

## HILEKO ESALDIA

**"Laster kolore askotako herria izango dugu, gizarte biziagoa eta kultura aberatsagoa"**

**AMAIA ZUGASAGASTI** / LANGILEA
2001-09-14

## HILEKO DATUA

# 5

**LANGILE, HERRIKO ERROLDA BERRITZEKO**

Udalak bost langile hartu zituen etxebizitzen errolda berritzeko. Herrian erroldatua egon beharra zuten langileek. /2001-09-14



## Jai giroa nagusi San Migeletan

Baserritar jantzita kalera irten ziren aretxabaletarrak San Migel zapatuan. Kaleak postuz beteta, eta han eta hemen zer ikusi izan zen. Horrez gain, bertsolariak, herri bazkaria, Jose San Migeli omenaldia, dantzak, musikak eta eguraldiak lagundu zioten eguneko jai giroari. Domekan, ikuskizun handia eskaini zuten herri kirolek. /2001-09-29

**EZ ERRETZEKO ERABAKIA**
Udaletxeko hamahiru langileek ez erretzeko kanpaina hasi zuten. /2001-09-28

**AUTO BAKO EGUNARI JARAMON GUTXI**
Irailaren 22an, autorik gabeko eguna izan zen, baina herrian ez zuen arrakasta handirik izan. /2001-09-28

## AIPAGARRI



**JOSE SAN MIGEL**
**Pilota entrenatzailea**

San Migeletan Jose San Migelek omenaldia jaso zuen. Pilotan egindako lanagatik herriak eskerrona erakutsi zion entrenatzaileari. / 2001-09-29



**ODILO VÁZQUEZ**
**Karate irakaslea**

Gerriko beltzaren 3. DAN delakoa eskuratu zuen Odilo Vázquezek Logroñon jokatu zen lehiaketan. 1996an atera zuen 2. DANa, asko kostata . /2001-09-11



**IGOR BASTARDO**
**Bake epailea**

Irailaz geroztik bake epaile berria izan genuen herrian, Igor Bastardo, hain zuzen ere. Igorrek Kepa Azkue aurreko bake epailea ordezkatu zuen./2001-09-01

PARROKIA

### San Migeletarako zabaldu zuten Andre Mariaren parrokia

Andre Mariaren Zeruratze parrokia zazpi hilabetean itxita egon ondoren, irailaren 29an zabaldu zuten, San Migel jaietarako, hain justu ere. Parrokia txukun eta polito geldit zen bai kanpotik baita barrutik ere. Hala eta guztiz, hemen ere gustu guztietako iritziak izan ziren. /2001-09-29

HAUR DANTZARIEN EGUNA

### Plazarik plaza ibili ziren haurrak Dantzari Egunean

Haur Dantzarien Egunean, inguruko herrietatik dantzari ugari hurbildu ziren gurera. Goizean plazaz plaza ibili ziren dantzan, eta arratsaldean, urtero moduan, *Alardea* izan zen herriko plazan. Aurten, eguraldiak ez zuen batere lagundu eta plazara ez zen jende askorik hurreratu. /2001-09-23

SAHARAKO KANPAMENDUA

### Saharako errefuxiatuen inguruko ekitaldiak

Saharako errefuxiatuen bizimodua zelakoa den erakusteko, hainbat ekitaldi egin ziren. Durana kalean Saharako irudiez eta elementuez betetako erakusketa antolatu zuten. Plazan, bestalde, hango kanpamendu bat jarri zuten, eta bi sahararrek tea eskaini zieten herritarrei. /2001-09-22



### Noizko konponduko dituzte Larrinoko eta Arientzako bideak?

**"Foru Aldundiak bere berba betetzen badu behintzat, datorren urtean konpondu beharko lituzke bi bideak. Gero, Larrinokoa udalaren eskuetara pasatuko litzateke", adierazi digu Anjel Bergaretxe alkateak.**

**LARRINOKO BIDEA UDALAREN ESKUETARA** /2001-09-28

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.
ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK
Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA
Zuzendaria: Lyonel Arquero
Dekorazioa: Soraya Arquero

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK
RKU
URKULU, S.L.
Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Udalatx Inmobiliaria
Sail eta etxebizitzen salmenta Eskoriatzan
Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behea-ezk.
ARRASATE

# URRIA



*"Goraintziak legez kanpo 700 kilometrora espetxeraturik dagoen Kepari"*

**KEPA ERRASTI**
IKASLEA
2001-10-11



*"Aretxagazetak herrikoia, zuzena, apala, eta geurea izaten segituko du"*

**EDORTA MENDIETA**
ARETXAGAZETAKO PRESIDENTEA
2001-10-19

## HILEKO ESALDIA

**"Joko ona eta irabaztea osagarriak dira. Hala ere, partiduak irabazteari lehentasuna ematen diot"**

**ENRIQUE NIETO** / ENTRENATZAILEA
2001-10-26

## HILEKO DATUA

**25**

**MILIOI JASO ZITUEN UDALAK FORU ALDUNDITIK**

Foru Aldundiko Solidaritate fondotik 66.000 pezeta emango zitzaiola biztanleko Aretxabaletari berri eman zen. /2001-10-26



### Gastronomia eta folklore jaialdia

Hilaren 21ean, V. Gastronomia eta Folklore Jaialdia egin zen, Udaleko KIUB kontsumo bulegoak antolatuta. Azkeneko bost urteotan moduan, Espainiako hainbat herrialdetako soinu, kolore eta usainez bete zen herria. Arrasatetik Corazon de Encina extremadurarrak eta Alegria de la Sierra abesbatza andaluziarra, Laudiotik Gaztela eta Leongo San Fernando taldea, eta Donostiatik Galiziako Casa de Galicia eta Errioxako Casa Rioja etorri ziren. Ohiturari jarraituz, arratsaldean patxaran lehiaketako sariak banatu zituzten. Amaia Isasisasmendi eibartarraren patxaranari eman zioten lehen saria. Bigarrena, berriz, etxean geratu zen, Jose Lonbideren patxaranak jaso zuen, eta hirugarren saria, bestalde, Markel Irizarrendako izan zen. /2001-10-21

**FELIX IÑURRATEGI-BALTISTAN FUNDAZIOA**
↑ Felix Iñurrategi-Baltistan fundazioa jendaurrean aurkeztu zuten. /2001-10-10

**EAJ/EA ETA BATASUNA EZIN KONPONDU**
↓ EAJ/EAkoak ez ziren joan Gobernu batzordeetara, Batasunarekin arazo batzuk izan zituztelako. /2001-10-06

## AIPAGARRI



**TXIKI ZAMORA**
**Itoitzeko solidarioa**

Gabonetatik etorri barik zegoen herrira, eta urrian bisita egin zigun Txikik. Itoitzeko egoera salatu eta atxilotuta duten lagun baten berri eman zuen. /2001-10-11



**JOSE LONBIDE**
**Patxaran egilea**

Gastronomia eta folklore jaialdiko patxaran lehiaketan bigarren saria eskuratu zuen Jose Lonbidek. Lehenengo saria Eibar aldera joan zen. /2001-10-21



**LOREA ABARIK**
**Aurkezlea**

Aurpegi berriak agertu ziren Goiena telebistan, eta horietako bat Lorea Abarik izan zen. Loreak *Sarean* programa aurkezteari ekin zion. /2001-10-16

FORMATU ALDAKETA

### Egunkari formatura salto egin zuen ARETXAGAZETAk

Formatua aldatzeaz gain, astekari bihurtu zen ARETXAGAZETA hilaren 19tik aurrera. Hamabi orrialdekoa izatera pasatu, eta *Ze barri* Eskoriatzako aldizkariarekin batera banatzen hasi zen. *Goienkaria*ren barruan integratu zen, eta geroztik etxe guztietan banatzen da. /2001-10-19

KUADRILATEGI

### Gazteen aisialdia betetzeko Kuadrilategi proiektua abian

Udaleko Euskara eta Kultura Sailak bultzatuta Kuadrilategi proiektua jarri zen abian, gazteen aisialdia bete eta euskara bultzatzeko. Udan dinamizatzaileak hartu ziren, eta irailean, 100 orduko ikastaroa egin ostean, umeekin lanean hasi ziren herriko hiru gazte. /2001-10-26

FUTBOLA

### UDAko talde gehientsuenek ondo hasi zuten denboraldia

Denboraldia bikain hasi zuten UDAko talde gehienek. Urriaren 26an, batik bat, preferente, bigarren mailako erregional eta lehen mailako kadete taldeak sailkapeneko lehen postuan zeuden. Emaitza horiek ikusita partiduetara jende gehiago hurreratu zen. /2001-10-26

**AKORDEOI ORKESTRA PRAGAKO TXAPELKETARA** /2000-10-11



**JUANJO OROBENGOA**
AKORDEOI ORKESTRAKO ZUZENDARIA

### Akordeoi Orkestran zein asmo duzue datorren urterako?

**Danimarkatik etorri berri gara, eta datorren urteko Pragako txapelketan pentsatzen hasi gara. Ez da samurra izango, Kroaziako taldeek maila handia daukate-eta.**

Urte berri on guztioi!

**LEIBAR**
arrandegia



**Mitarte Kalea, 1**
**Tel.: 943 77 13 79**
**Aretxabaleta**

# Taberna eta jatetxeen gida

## Gurea taberna
Eguneko menuak
plater konbinatuak
GUREA
Durana kalea • 943 79 20 64

## Haizea taberna

Kafetegia
eta
taberna
HAIZEA
Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel. 943 79 88 60

## Dorleta taberna
Dorleta
Bezeroen zerbiztura
Loramendi 8 • ARETXABALETA
943 79 94 15

## Hirusta jatetxea
Zatoz gure sukaldea ezagutzera

Ilargi plaza, 4 Tel.: 943 79 06 57

## Izotz taberna
Zure gustuko giroa
IZOTZ
TABERNA
Mitarte, 16 • 943 79 73 65

## Arlutz taberna
TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 943 79 32 34
Gustoko musika

## Ezkutu taberna
EZKUTU
TABERNA
• ARETXABALETA •
Zatoz gure musikaz gozatzera
Mitarte, 9 • 943 79 92 01

## Baster alde jatetxea

SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN
Galartza auzoa
943 79 24 58
ARETXABALETA

## Mitartegarai
Mitartegarai
Jatetxea
Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel. 943 79 17 51


## Urbaltz taberna
URBALTZ
TABERNA
URBALTZ
Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

## Zaraia taberna
MANTEKA
ANAIAK
Goizeko 5:30etik
zure zerbitzura
Araba ibilbidea 20 • 943 79 88 95

## Exprex


Santa Kurtz 16
943 79 23 43
Zure gustuko giroa

## Josu taberna
Josu
haratetegia
taberna
• Urdaitegia- gozotegia
• Kroasantegia
• Gertatutako janariak
Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08


## Taberna Berri

Taberna Berri
Jatetxea
Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

## Mendiola erretegia
ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA
Bazkariak
eta afariak
Astelehenetan
itxita
Mendiola auoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

## Zorionak eta urte berri on!

# AZAROA



*"Nork sinis dezake Espainiako demokrazian? Nik, behintzat, ez."*
**FELIS BELTRAN DE HEREDIA**
LANGILEA
2001-11-09



*""Goienkaria trenak" luzaro iraun dezan, denok bota beharko diogu ikatza"*
**IRATI PAGOAGA**
IKASLEA
2001-11-16

## HILEKOESALDIA

**"Nola ihartuko da horren erro sakonak dituen zuhaitza? Baserritarra izatekotan gogorra da."**

**AITOR AGIRIANO** / IKASLEA
2001-11-23

## HILEKODATUA

# 14

**MILIOIKO ZORRA DAUKA PARROKIAK ORDAINTZEKO**

Zaharberritze lanak bukatuta eta inauguratze ekitaldia eginda, oraindik lanak ordaintzeko 14 milioi geratzen ziren. /2001-11-23



## Inaugurazio ekitaldi txukuna

Eliza jendez gainezka egon zen parrokiaren inauguratze ekitaldian, bai Aitor Antxiaren liburu aurkezpena entzuteko, bai Juan Maria Uriarte gozainaren meza jarraitzeko. Anjel Bergaretxe alkatea eta Sokorro Unanue Kultura zinegotzia ere hantxe izan ziren. Elizarekin batera, aldarea ere lepo egon zen: Jon Molina, Lorentxo Galdos, Goio Ezkibel, Ramon Mari Elkoro, Mikel Egizabal, On Bitoriano eta tonio parrokoa. Abesbatza fin ibili zen, gotzain jauna bera ere hunkitu egin zen-eta.

Lanei dagokienez, obrak hasi zirenean 100 milioi inguru aurreikusi zituzten parrokia berritzeko, eta horietatik 30 milioi herritarrei eskatu zizkieten. 35 milioitik gora eman zituzten atxabaltarrek. Hala ere aurrekontuak gora egin zuen. /2001-11-17

**ABARRAK ONGARRIA EGITEKO**
↑ Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez, herrian moztutako abarrak ongarria egiteko erabili ziren. /2001-11-16

**ZINEMA IREKI BARIK**
↓ Udazkenean egon arren, zinemarik ez genuen izan, eta herritarrak kanpora joan behar izan ziren. /2001-11-28

## AIPAGARRI



**AITOR ANTXIA**
**Irakaslea**

Aitor Antxiak XV. mendean hasi eta gaur arte herriko parrokiaren inguruan artxiboetan idatzitakoa jasotzen duen liburua aurkeztu zuen. / 2001-11-17



**XABIER SARASUA**
**Kiroletako irakaslea**

Deba ibarreko Euskara eta Kirol Zerbitzuak xakeko kirol materiala euskaraz lantzeko beka egokitu zion Xabier Sarasua aretxabaletarrari azaroan. /2001-11-16



**IBAN CABERO**
**Piraguismo saila**

Oier Arantzabalek utzi zuen hutsunearí erantzunez, Iban Cabero izendatu zuten piraguismo saileko arduradun. Gogoz ekin zion lanari. /2001-11-09

BEHOBIA-DONOSTIA

## Herritar ugari animatu zen Behobia-Donostia egitera

Eguraldi txarrari aurre eginez, aretxabaletar ugari hurreratu zen hilaren 11n Behobia-Donostia herri lasterketara. Lehenengo aretxabaletarra Ramon Jausoro izan zen, 24. postuan. Herriko bi emakumek bukatu zuten proba, Amaia Gaztañagak eta Ainhoa Murgoitiok. /2001-11-11

LITERATURA LEHIAKETA

## XIII. Loramendi Literatura Lehiaketa abian

Loramendi euskara elkarteak Aretxabaletako eskola arteko XIII. Loramendi Literatura Lehiaketa jarri zuen abian. Iaz, 150 lagun aurkeztu ziren, gehienak Kurtzebarri eta Almen eskoletakoak. Aurtengorako ere antzeko helburua jarri zuen elkarteak. /2001-11-23

MENDI ASTEA

## Proiekzio ugari Murrukixoren Mendi Astean

Murrukixo mendi elkarteak mendi astea antolatu zuen azaroaren 26tik 30era bitartean. Hainbat mendizale hurreratu ziren Murrukixoko lokaleraino, tartean, Andoni Areizaga, Edurne Pasaban eta Ramon Iturricastillo. Mendiaz gain, piraguismoak ere izan zuen tartea. /2001-11-23



## Kaminerokua baserria bota egingo dute azkenean

**Kaminerokua baserria ondare historiko izendatu arren, baserria bota eta etxebizitzak egingo dituzte. Udalak lurzorua lagapenean eman dio Jaurlaritzari, etxebizitza sozialak egiteko.**

ETXEBIZITZA SOZIALAK EGINGO DITUZTE /2001-11-23

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

PIENSOS
SUNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY

Zorionak eta urte berri on!

# ABENDUA



*"Hemen dagoen potentzialaz geuk be zerbait egin beharko dugu, ba?"*
**XABIER SARASUA**
IRAKASLEA
2001-12-05



*"Ez du merezi ekintzak antolatu eta antolatu ibiltzerik"*
**INMA MIGUEL**
KULTURA TEKNIKARIA
2001-12-05

## HILEKO ESALDIA

**"Gaur egun kirol elkarteetan lan egin gura duen jendea topatzea ez da batere erraza"**

**ASIER MUXIKA** / KIROL TEKNIKARIA
2001-12-12

## HILEKO DATUA

# 4.500

**BAZKIDE DITU SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIAK**

Urteroko batzar orokorrean aditzera eman zuten herritar eta kanpotarren artean ia 4.500 bazkide dituela kofradiak. /2001-12-08



### Termiten aurkako tratamendua ematen hasi ziren Durana kalean

Durana kaleko hainbat etxebizitzatan termitak zeudela ikusi ostean, Udala termiten aurkako tratamendua ematen hasi zen. Batetik, kalea goitik behera zulatu eta produktu kimikoa sartu zuten, termitak pasatu ez zitezen hesia jarriz, eta bestetik, lekuko gisa jokatuko zuten pozoidun hodiak jarri zituzten. Hodi horiei bost urteko jarraipena egingo diete. /2001-12-03

**GABONETAKO APAINGARRIAK**

↑ Diru gehiegi gastatu barik, Udalak polito apaindu zituen bai herri erdigunea bai inguruko kaleak ere. /2001-12-10

**ZUHAITZAK MOZTUTA**

↓ Santa Kurtz kaleko lorategietan bi lizar eta bi izei gorri aizkoraz moztuta eta botata agertu ziren. /2001-12-09

## AIPAGARRI



**UNAI MENDIKUTE**
**Akordeoilaria**

11 urteko akordeoilari gaztea 2. geratu zen Gipuzkoako XXII. Akordeoi Txapelketan. Ordu erdiko lana jo behar izan zuen epaimahaiaren aurrean. /2001-12-09



**J. C. FERNÁNDEZ**
**Auto gidaria**

Mendiko Euskal Txapelketa bukatu ostean, Juan Carlos Fernández *Falapa* gidari aretxabaletarra hirugarren geratu zen bere automobilarekin. /2001-12-14



**MIKEL ARROIABE**
**Irudigilea**

Urkuluko hegaztien inguruko liburua kaleratu zuen Udaleko Ingurumen Sailak. Hegaztien irudi guztiak Mikel Arroiabe irudigileak egin zituen. /2001-12-21

HIRIGINTZA

### Etxebizitza eta garajea enkantera atera zituen Udalak

Udalak Santa Kurtz kaleko 22. zenbakian kokatutako etxebizitza eta garajea enkantera atera zituen. Etxebizitza 108 m²koa eta berri-berria zen, eta 30 milioitan atera zituen.GBOn hilaren 13an argitaratu ostean, 26 egun izan zituzten herritarrek eskaintzak Udalari jakinarazteko. /2001-12-13

KULTURA

### Negu Kulturaleko egitaraua kalean ekintzaz beteta

Udaleko Kultura Sailak Negu Kulturaleko ekintzen berri ematen zuen egitaraua kaleratu zuen. Gustu guztietarako ekintzak antolatzen saiatu ziren, umeei tarte handia eskainiz. Kontzertuak, erakusketak, Gabonetako ikuskizunak... denetik eta denondako egokituta. /2001-12-13

GIZARTEA

### Hiruatx hirugarren munduko elkarteak, hamar urte

Hiruatx hirugarren munduko elkarteak hamar urte bete zituen abenduan. Hainbat proiektu eroan zituzten aurrera tarte horretan, Indiako Unain bi proiektu, besteak beste. Herritarrei eskerrak eman gura izan zizkien, eta aurrerantzean ere laguntzen jarrai zezatela eskatu. /2001-12-21

**BAINUETXEKO INDUSTRIALDEKO LANAK BUKATU BARIK** /2001-12-14



**KOLDO AZKOITIA**
INDUSTRIALDEKO GERENTEA

### Industrialdea ez dute oraindik bukatu. Noizko jarri da epea?

**Abenduaren 31rako bukatu gura genuen, baina lanek atzerapen txiki bat izan dute. Bigarren pabilioia bukatu ostean, txukuntze lanak egin eta otsailerako gertu egongo da.**

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

INDUSTRI HORNIDURAK

M

MEMESA

Tel.: 943 71 24 25 / Fax: 943 71 22 98
ARETXABALETA - ARRASATE - OÑATI

ERRETRATUZAHARRA

# Aretxabaletara erregeak etorri zireneko argazkia



Ez da horrenbeste denbora pasa errege magoak lehengo aldiz Aretxabaletara etorri zirela. Argazki hau esaterako orain 26 bat urte ateratakoa da, eta gutxi gorabehera orduan hasi zen errege magoen kabalgata egiteko ohitura. Eta gaur egunera arte, gainera aipatutako desfile eta errege magoen kabalgata ez da asko aldatu.

Pajeak edo laguntzaileak ondoan zituztela, antortxeroen argiarekin eta zaldi gainean irteten zuten orduan ere hiru erregeek. Bidean, noski haurrei gozokiak banatzen zitzaizkien. Ausartenak, argazkiko ume txikiaren modukoak, erregeari urreratu eta muxu baten truke jasotzen zuten gozoki eskukada. Besteek airean hartutakoekin konformatu beharra izaten zuten gaur egun bezala.

Argazkian errege moduan jantzita Ramon Antxia "Ramon Porru" ageri da. Laguntzaile edo pajeak aldiz, Iñaki Uribetxebarria eta Pedro Etxebarriarteun dira. Erregeren zaldi ondoan, Miren Zuabeitia dago eskuetan, berriz, Mari Carmen Uribesalgo du neskatila txikia zela.

Orduan gainera, erregeekin konformatu beharra izaten zuten. Izan ere oraindik ez zen Olentzero mendietan ikatza egin eta gero herrira jaisten.

**Argazkia**: Miren Zuazabeitia
**Informazioa**: M. Zuazabeitia
**Urtea**: 1975

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

# Agur Benardinoren etxeari

Mitarte kalea Aretxabaletako bihotza dugu. Herriaren erdigunean kokatuta garai baten hortxe zegoen Benardino Zubiaren etxea ere. Baina, 1987. urtetan etxebizitza bakarra beharrean gehiago egiteko asmoz bota egin zuten.

Argazkietan, eskuin aldean, herriko etxebizitzarik garaienak ikus daitezke. Mitarte plazakoak hain zuzen ere.



± 1987 **Guztiz aldatu zitzaion itxura Mitarte kaleari Benardino Zubiaren etxebizitza goitik behera bota zutenean.**



2001 **Lehengo etxebizitzaren ordez lau solairutako etxebizitza izugarria egin zuten. Behealdean, Muru alde elkarte gastronomikoa jarri zen.**

ZORIONAK ETA URTE BERRION ATXABALTAR GUZTIOI ETA GURE ARTEAN EGON BEHAR LUKETEN GUZTIEI!!!

KEPA URRA ETXERA!!!!

Aretxabaletako batasuna


" ARETXABALETAKO UDALAK HERRITARROI
GABON ZORIONTSUAK OPA DOTSUE
ETA URTE BERRI ZORIONTSUENA "
2002
Aretxabaletako Udala

# GRUPO ARKAUZ 1950-2002









*Arkauz zure etxea da.*





ARKAUZ ALTZARIAK
Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL MUEBLES ALTZARIAK
Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ SUKALDE INTEGRALA
Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA
FAGOR

ARKAUZ ELEKTRAGAILUAK
Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA
expert